

DEIALDIA, ZERBITZU ANITZETAKO OFIZIALAREN LANPOSTURAKO IZANGAIEN BI ZERREDA HAUTAPROBEN BIDEZ OSATZEKO: BAT ZERBITZU BEREZIETAKO EGOERAN PRESTATZEKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO, EGUESIBARKO BEHARRAK BETETZEKO.

I.-PRESTAKUNTZARAKO IZANGAIEN ZERREDA BAT ZERBITZU BEREZIETAN OSATZEKO DEIALDIA

Hona hemen deialdiko

OINARRIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.

1. Aditzera ematen da deialdia eginen dela prestakuntzarako zerbitzu berezietan arituko diren izangaien zerrenda bat hautaprobek bidez osatzeko, Eguesibarko Udalean sortzen diren beharrei aldi baterako erantzun ahal izateko. Hona hemen lanpostuak:

Zerbitzu anitzetako ofiziala, C mailakoa.

2. Besteak beste, zehatz-mehatz ez bada ere, honako hauek izango dira lanpostuaren eginkizunak:

–Zerbitzu anitzak, instalazioen eta obren mantentze orokorraren brigadaren berezko jarduerekin lotuak, haien funtzionamendu egokiaren jarraipena, kontserbazioa eta mantentze lana.

–Hiri-altzarien instalazioa eta mantentze-lanak: zutoinak, seinaleak, farolak, bankuak, iturriak, etab.

–Altzariak eta tresnak lekuz aldatzea eta jartzea. Eszenatokiak, hesiak eta gainerako tresnak muntatu eta desmuntatzea jai eta ekitaldi publikoetan.

–Ibilgailuak gidatzea eta makinak erabiltzea (C motako gidabaimena ere bai, halakorik izanez gero).

–Udal azpiegitura eta aretoetako mantentze eta konponketa lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, zurgintza, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixtea.

–Bere mailaren barruan agintzen zaizkion instalazio berriak eta hobekuntza-ekintzak egitea, eta lanean erabiltzen dituzten ibilgailuen mantentze- eta kontserbazio-lanak egitea.

–Agintzen zaion kale garbiketa egitea, Eguesibarko Udalak eskura dituen baliabideak erabiliz.

–Eguesibarko Udalak eta kontzejuek antolatzen dituzten festak eta kultur ekitaldiak prestatzen eta garbitzen laguntzea, bai eta Eguesibarko Udalak laguntzen edo babesten dituen ekitaldietan ere.

–Udaleko beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen zaienean, eta kanpoko zerbitzuekin koordinatzea, langile espezializatuen esku-hartzea beharrezkoa denean.

Era berean, lanpostuari dagozkion eginkizun orokorrak hauek izango dira:

–Segurtasun- eta higiene-arauak betetzea, egiten den lan bakoitzerako egokiak diren babes-ekipoak behar bezala erabiliz.

–Udal azpiegituretan, bulegoetan eta ekipamenduetan antzemandako gabeziak, matxurak eta kalteak konpontzea, eta horiek hobetzen laguntzea

zerbitzuak, hobekuntza horretan lagunduko duten ekintzak eta aldaketak proposatuz.

–Bide eta espazio publikoen egoera egokia berrikustea, baita udal eraikinen egoera ere, mantentze eta/edo hobekuntza lanak proposatuz eta eginez.

–Edozein motatako udal zerbitzuak ematea eta Alkatetzak edo haren ordezkio organoek agintzen dioten beste edozein eginkizun.

–Udalaren makineria, ibilgailuak, erremintak eta lanabesak erabili, mantendu, ikuskatu eta konpontzea. Biltegiaren kontrola.

–Pintaketa-lanak bideetan, dekorazio-lanetan eta obra-lanetan.

–Igeltserotza-lanak, bideak, udal-bulegoak, instalazioak eta biltegiak mantentzeko lanak, oro har.

–Lanak egunero antolatzea, baita horretarako behar diren makinak, erremintak, ibilgailuak eta materialak ere.

–Burutzari proposatzea, lan-programan oinarrituta, behar besteko aurrerapenarekin kontratatu behar diren materialak eta ekipoak, geldialdiak edo atzerapenak saihesteko.

–Sortzen diren larrialdiak, zailtasunak eta desbideratzeak konpontzea, eta, horretarako, ekintza zuzentzaile egokiak, larrialdien eta ezartzen diren lehentasunen arabera.

–Eta, oro har, organo eskudunak agintzen dizkion egungo eta etorkizuneko lan guztiak egitea, lanpostuarekin lotuta eta haren maila eta kategoriaren barruan.

Bigarrena.–Parte-hartzaileen betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Eguesibarko Udaleko enplegatutako finkoa izatea, lortu nahi den lanpostukoa baino maila edo talde baxuagoan egotea, eta prestakuntza jasotzeko eskubidea duen gehieneko aldia ez agortzea.

b) Borondatezko edo nahitaezko lan-utzialdian ez egotea.

c) Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariarena edo baliokideren bat izatea.

Atzerrian lortutako titulua badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunak betetzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea.

f) B motako gida-baimena edukitzea.

2.2. Oinarri honetan jasotako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta hautapen prozedurak iraun bitartean, baita deia egiten den unean eta prestakuntzak irauten duen bitartean ere.

Hirugarrena.—Parte hartzeko eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak. 3.1. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskaera, udalaren egoitza elektronikoaren bidez, honako izapide honen bidez:

<https://sedeelectronica.valledeegues.es/catalogoservicios.aspx?area=577&ambito=1>

3.2. Tasak

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik 15 euroko tasa ordaindu beharko da, Udalaren egoitza elektronikoan izena emateko izapidean.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Azterketa egiteko eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia behin betiko baztertuko da.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkezteko izapidea.

3.4. % 33ko edo hortik goitiko ezgaitasun aitortua duten izangaiek hura frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

Era berean, probak egiteko denbora eta/edo baliabide aldetik egokitzapenak eskatzen dituzten desgaitasuna duten izangaiek hala adierazi beharko dute beren eskaeran, eta, horretarako gaitutako espazioan, eskatutako egokitzapena edo behar diren denbora eta/edo baliabide egokitzapenak zehaztu beharko dituzte. Horretarako, deialdian parte hartzeko eskaera aurkezten duen unean, izangaia egoki jotzen dituen agiriak aurkezten ahalko ditu.

Dokumentazio hori modu telematikoan aurkeztu beharko da eskaerarekin batera.

3.5. Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea. Hala ere, aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehatzak ez badira edo faltsuak badira, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

II.—ALDI BATERAKO KONTRATATUAK IZATEKO IZANGAIEN ZERRENDAK OSATZEKO DEIALDIA

Hona hemen deialdiko

OINARRIAK

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea.

Aditzera ematen da izangaien zerrenda hautapoben bidez osatzeko deialdia eginen dela, Eguesibarko Udalean sortzen diren beharrei aldi baterako erantzun ahal izateko. Hona hemen lanpostua:

Zerbitzu anitzetako ofiziala, C mailakoa.

Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda hori subsidiarioa izanen da ekainaren 29ko 240/1992 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera langile finkoen beste edozein zerrendari dagokionez, lehendik daudenei edo etorkizunean sor daitezkeenei dagokienez.

Bigarrena.—Parte-hartzaileen betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, betiere langileen zirkulazio askea aurreikusten badute.

Espainiako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, bai eta Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea dutenek eta aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden estatuetako nazionalitatea dutenek ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude; halaber, ezkontideen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariarena edo baliokideren bat izatea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitze- edo etete-egoeran ez egotea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertuta ez izatea.

f) B motako gidabaimena izatea.

2.2. Oinarri honetan jasotako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta hautapen prozedurak iraun bitartean, baita deia egiten den unean eta kontratazioak irauten duen bitartean ere.

Hirugarrena.—Parte hartzeko eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak. 3.1. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun balioudunekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskaera, udalaren egoitza elektronikoaren bidez, honako izapide honen bidez:

<https://sedeelectronica.valledeegues.es/catalogoservicios.aspx?area=577&ambito=1>

3.2. Tasak

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik 15 euroko tasa ordaindu beharko da, Udalaren egoitza elektronikoan izena emateko izapidean.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Azterketa egiteko eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia behin betiko baztertuko da.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkezteko izapidea.

3.4. % 33ko edo hortik goitiko ezgaitasun aitortua duten izangaiek hura frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

Era berean, probak egiteko denbora eta/edo baliabide aldetik egokitzapenak eskatzen dituzten desgaitasuna duten izangaiek hala adierazi beharko dute beren eskaeran, eta, horretarako gaitutako espazioan, eskatutako egokitzapena edo behar diren denbora eta/edo baliabide egokitzapenak zehaztu beharko dituzte. Ondorio horietarako, izangaiak, parte hartzeko eskaera aurkezten duenean, komenigarritzat jotzen duen dokumentazioa aurkezten ahalko du.

Dokumentazio hori modu telematikoan aurkeztu beharko da eskaerarekin batera.

3.5. Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea. Hala ere, aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehatzak ez badira edo faltsuak badira, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

III.– BI DEIALDIETARAKO ARAUAK

Lehenengoa.–Eskabideak eta tasak aurkeztea.

1.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak telematikoki soilik aurkeztu beharko dira, Eguesibarko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, deialdi bakoitzeko hirugarren oinarrian aipatzen diren estekak erabiliz eta oinarrietan jasotako jarraibideen arabera.

Bigarrena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Deialdiaren testu osoa, oinarriak barne, eskuragarri egongo da udalaren webgunean www.valledeegues.com, deialdiaren fitxan.

Hirugarrena.–Izangaiak onartzea.

3.1. Behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Udaleko Alkatetzak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta udaleko iragarki taula elektronikoan eta web orrian www.valledeegues.com argitaratuko da, deialdiaren fitxan.

Egun horretatik aurrera, baztertutako izangaiek bost egun naturaleko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko.

Inor baztertzen ez bada, zuzenean onetsiko dira onartuen behin betiko zerrendak.

3.2. Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzitakoan, Udaleko Alkatetzak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratzeko aginduko du, deialdian ezarritako hautaproba egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

Onartutakoen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako betekizunen jabe direnik. Izangaiek aurkeztu behar dituzten agiriak edo Administrazioak dituenak aztertuta ikusten bada eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen, deialdi honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

3.3. Onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrendak argitaratzean, dagokion jakinarazpena egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Laugarrena.–Epaimahaia.

4.1. Epaimahaia pertsona hauek osatuko dute:

·Lehendakaria: Xuriñe Peñas López andrea, Eguesibarko Udaleko alkatea, edo legez ordezkatzeko duena.

ordezko epaimahaiburua: Sabi Atipov Keskinev jauna, Eguesibarko Udaleko zinegotzia.

1. mahaikidea: Joseba Gil Zubeldia jauna, Udaleko zerbitzu anitzetako burua.

o 1. Mahaikidearen ordezkaria: Íñigo Polo Induráin jauna, udal lorategietako arduraduna.

·2. mahaikidea: David Hernández Cabrerizo jauna, udaleko zerbitzu anitzetako ofiziala.

o 2. Mahaikidearen ordezkaria: Manuel García Alcalá jauna, Udaleko zerbitzu anitzetako ofiziala.

·3. mahaikidea: Eguesibarko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

o 3. Mahaikidearen ordezkaria: Eguesibarko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

·Batzordekide-idazkaria: Jesus Miguel Erburu Arbizu jauna, Eguesibarko Udaleko idazkaria.

oldazkari ordezkaria: Pablo Gil Morrás jauna, Eguesibarko Udaleko aholkulari juridiko-kudeatzailea.

4.2. Epaimahai kalifikatzailea osatzen dutenek parte hartzeari uko egin beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusten diren abstentzio arrazoiak ematen direnean.

Era berean, epaimahaia osatzen duten pertsonak errefusatu ahal izango dira, inguruabar horiek gertatzen direnean.

4.3. Epaimahaia hautapropa egin aurretik eratu beharko da.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardunean aritu ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu ez bada. Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdietako oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren arazo guztiak.

4.5. Epaimahaiak probarako aholkulari espezialistak biltzen ahalko ditu. Horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Bosgarrena.—Probak

Hautaketa-prozesu honek bi ariketez osatutako oposizio-fase bat izango du. Hautapen prozesuaren gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izanen da.

5.1. Oposizio fasea:

Oposizio fasean bi proba teoriko eta praktiko egin beharko dira. Biak baztertzaileak izango dira:

5.1.1. Lehenengo ariketa: Proba teorikoa. Gehieneko puntuazioa, 40 puntu.

Test erako idatzizko proba bat egin beharko da, 40 galderako galdera-sorta batez osatua. Galdera bakoitzak hiru erantzun izango ditu, eta bakarra izango da baliozkoa. Galderak deialdi honen I. eranskinean bildutako gai-zerrendaren edukiari buruzkoak izanen dira. Erantzun zuzen bakoitza puntu 1ekin baloratuko da, eta erantzun oker bakoitzeko galderaren balioaren erdiarekin zigortuko dira hutsak. Erantzun bat baino gehiago duten galderek, edo zuriek, ez dute ez punturik ez zigorrik jasoko.

Proban 40 puntu emanen dira gehienez. Proban ezarritako gehieneko puntuazioaren% 50 (20 puntu) gutxienez lortzen dutenek gaitutuko dute proba. 20 puntu lortzen ez dutenek ezin izanen dute hurrengo proba egin eta baztertutik geldituko dira.

Proba hasi baino lehen, epaimahai kalifikatzaileak zehaztuko du haren gehieneko iraupena.

Proba egiten den bitartean ezin izango da inolako testurik kontsultatu, ezta inolako kontsulta elektronikorik egin ere.

Probarako deialdi bakarra egingen da, eta parte hartzen dutenek nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat aldean dutela agertu beharko dute. Nortasuna egiaztatu ez edo agertzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Probak irauten duen bitartean, ezgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat, denbora eta baliabide aldetik epaimahaiak ezartzen dituen egokitzapenak ezarriko dira, beharrezkoak eta egingarriak.

Epaimahaiak Udalaren iragarki oholean eta Udalaren web orrian argitaratuko du izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin, eta hurrengo ariketa egiteko eguna eta tokia adieraziko ditu, berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez.

Bigarren probarako deialdia egingo zaie, ariketa gainditu arren, lehenengo proba egitean kalifikaziorik altuenak lortu dituzten 30 pertsoneri. 30 zenbakiko izangaia zerrendako beste batzuek lortutako notarekin bat datorrenean, guztiak pasatuko dira hurrengo probara.

5.1.2. Bigarren ariketa: Froga praktikoa.

Proba praktikoa. I. eranskinetako gaiei buruzko bi proba praktikoa egin beharko dira.

Epaimahaiak erabakiko du ariketa honetako probak egun bakar batean edo egun desberdinetan eginen diren, bai eta haien iraupena ere, ezartzen den edukiaren arabera.

Ariketa honetan gehienez ere 60 puntu lor daitezke eta ariketa honetan gehienez ere 30. Ariketa baztergarria izanen da bi probetan. Baztertu eginen dira bi probetan gutxienez ere 30 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Proben gehieneko iraupena eta haiek egiteko baldintzak epaimahai kalifikatzaileak zehaztuko ditu probak hasi aurretik.

5.1.3. Ariketetarako deialdi bakarra eginen da, eta parte hartzaileek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Nortasuna egiaztatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Hautaprobak egiten diren bitartean, ezgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat, denbora eta baliabide aldetik behar diren egokitzapenak eginen dira.

Seigarrena.—Emailtzak.

6.1. Oposizioko ariketa bakoitza zuzendu ondoren, emailtzak ikusgai jarriko dira Udalaren iragarki oholean eta web orrian, eta bost egun naturaleko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Aurkeztuz gero, epaimahaiak ebatziko ditu eta behin betiko emailtzak baliabide berberen bidez argitaratuko dira. Aurkezten ez badira ere, behin betikoak bezala argitaratuko dira.

6.2. Epaimahaiak zerrenda hauek argitaratuko ditu, bereizita:

—Prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izangai berrien deialdiko hautapen prozesua gainditu dutenen zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren arabera.

—Aldi baterako kontrataziorako deialdiko hautapen prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera.

6.3. Berdinketarik gertatuz gero, puntuazioan berdinketarik bada, irizpide hauen arabera ebatziko da:

a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: berdinketak ebatziko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean izangaiek aitortuta duten antzinatasunaren arabera. Bere horretan jarraituz gero, aldi baterako kontrataziorako deialdian ezarritako irizpideari jarraikiz ebatziko da.

a) Aldi baterako kontratatuak izateko izangaien deialdia: ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren alde ebatziko dira berdinketak, eta, berdinketak badirau, izangai zaharrenaren alde.

6.4. Oinarri honetan aurreikusitako jarduketak bukatu ondoren, epaimahaiak Udaleko Alkatetzari igorriko dizkio proba gainditu duten izangaien zerrendak, onets ditzan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera.

Zazpigarrena.—Lanpostuak betetzeko izangaien zerrenda eta deialdia.

7.1. Hautapen prozesuaren espediente osoa jaso ondoren, izangaien zerrendak onetsiko dira, Alkatetzaren ebazpen baten bidez. Ebazpen hori Eguesibarko Udaleko iragarki taula elektronikoan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

7.2. Trebatzen ari diren izangaiei ekainaren 29ko 240/1992 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera deituko zaie eta, hala badagokio, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran deklaratu dira; dena den, 96/1997 Foru Dekretuko 3.1 artikuluan ezarritako gehieneko aldia aplikatuko da, eta honako irizpide hauei jarraituko zaie:

7.2.1. Deialdia:

a) Izangaiei banaka deituko zaie, zerbitzuaren beharren arabera.

Izangaiek, beren lokalizazioa errazte aldera, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoko helbidea jakinarazi beharko dituzte parte hartzeko eskabidean. Horiek etengabe eguneraturik eduki beharko dituzte.

Lanpostutik kanpo egoteko arrazoiak direla-eta izangairen bat aurkitzen ez bada, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin harremanetan jarriko da, eskaintzen den lanpostua bete arte.

Harremanetan jartzerik izan ez duten interesdunek dagokien zerrendan jarraituko dute.

b) Ustez hiru hilabete edo gehiago iraungo duten lanpostuak baino ez zaizkie eskainiko prestatzen ari diren izangaien zerrendei.

a) Enplegatu bat zerbitzu berezien egoerara igaroz gero, trebatzen ari den beste enplegatu bat bakarrik izendatuko da, hala badagokio.

b) Prestakuntzarako zerbitzu berezietan dihardutenei ez zaie deituko zerrenda bakar batean ere ageri direlako, salbu eta deialdi berria beste zerrenda batetik egiten denean eta zerrenda hori goragoko mailako lanpostu bati dagokionean.

c) Aurreko idazatian agindutakoa baztertu gabe, deia egiten den unean jarduneko zerbitzuan dauden izangaiei baino ez zaie deituko.

Deia egiten den unean zerbitzu berezietan (aurreko d) idatz-zatian xedatutakoa izan ezik), eszedentzia berezian, lanpostua gorderik duen borondatezko eszedentzian edo etenduran dauden izangaiei ez zaie deituko, baina egoera horiek amaitzen direnean dagokien zerrendan jarraituko dute.

d)Deialdia egiten den unean lanerako aldi baterako ezintasuna, amatasunagatiko lizentzia edo adopzioagatiko lizentzia edo norberaren eginkizunetarako ordaindu gabeko lizentzia duten izangaiei ez zaie prestakuntzan dagoen lanposturik eskainiko, baina egoera horiek amaitzen direnean deituak izateko dagokien zerrendan jarraituko dute.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren egoeretako batean dauden izangaiek zerbitzuak emateko prest daudela jakinarazi beharko dute, horretarako agiriak aurkeztuz. Agirietan haien bukaera data adieraziko da, eta deirik ez da eginen jakinarazpen hori egiten ez den bitartean.

7.2.2. Uko egitea:

Izangairen batek uko egiten badio eskainitako lanpostuan prestakuntzan aritzeari, deialdia ekarri duen zerrendatik baztertuko da eta eskubideak galduko ditu.

7.2.3. Zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeari:

Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeraren deklarazioa berariazko administrazio ebazpen baten bidez eginen da, aldi jakin baterako, betiere Udalean ez badago eskatutako titulazioa egiaztatu ondoren.

7.3. Aldi baterako kontrataziorako eta, hala denean, kontrataziorako izangaiei dei egiteko, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa beteko da, dekretu horren bidez Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi baitzen, eta deialdi honen oinarrietan ezarritakoa, eta abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan aurreikusitakoa, hau da, aldi baterako kontrataziorako oinarrietan berariaz ezarri ez dena onesten baita.

Deitutakoak –beste eperik adierazten ez bada behintzat– dagokion kontratua sinatu beharko du horren berri jaso eta hurrengo bost egunen barruan –edo gehienez 15 egun lehenago, une horretan betetzen ari den lanpostuan aurreabisua eman behar badu–; horretarako, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, estatu, autonomia-erkidego, probintzia, udalerri edo funtzio publikoetatik kanporatua izan ez dela eta funtzio publikoak betetzeko desgaitua ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpenarekin batera.

Oinarri honetan zehaztutakoa aipatu epeetan betetzen ez bada, ezin izango da kontratazio efektiborik egin, eta dagozkion eskubideak galduko dira.

Horrela gertatuz gero, zerrendan ondotik heldu eta hurrenez hurreneko puntuaziorik onena duen izangaiari deituko zaio.

Deialdia egiteko, kontuan hartuko da, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko zazpigarren xedapen gehigarriko laugarren idatz-zatian ezarritakoa, bertan arautzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan desgaitasuna

duten pertsonak lanean hasteko alderdiak. Kasu horretan, kontratazioak egiaztatu beharko du desgaitasun-maila bateragarria dela dagozkion zeregin eta eginkizunekin.

7.4. Deitzen zaienek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, tituluaren fotokopia edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena aurkeztuz, edo, hala badagokio, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortzeko moduan egon izanaren ziurtagiria.

Eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak hautapen prozeduratik baztertuko dira Alkatetzaren ebazpen baten bidez, eta deialdian parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Ez da beharrezkoa izango aurkezten duten dokumentazioa jatorrizkoa izatea, ezta fotokopia konpultsatua. Agiri horien fotokopia arruntak ere aurkezten ahalko dira.

Hala ere, Administrazioak edozein unetan eska ditzake aurkeztutako agirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatua.

Zortzigarrena.—Errekurtsoak.

8.1. Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta beren aplikaziotik eta hautapen organoen jarduketatik sortzen diren administrazio egintza guztien kontra, errekurtso hauetako bat aurkezten ahalko da, hautara:

a) Berraztertze errekurtsoa, errekurritutako egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita. Epaimahai horren ebazpen espresu edo proposamenek amaiera emango diote foru administrazio bideari, eta haien aurka egin ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskudun diren organoen aurrean, legeria orokorraren arabera.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

8.2. Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

I. ERANSKINA

Gai-zerrenda

1. gaia.—Laneko arriskuei aurea hartzea. Segurtasun-neurriak ohiko pintaketa-, arotzeria-, mekanika- eta igeltserotza-lanetan.
2. gaia.—Segurtasun arauai, laneko higieneari eta oztopo arkitektonikoei buruzko oinarrizko ezagupenak.
3. gaia.—Soldadurari eta doikuntzarako makineriaren erabilerari buruzko ezagupenak.
4. gaia.—Eraikinetako banaketa koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak eta diferentzialak.
5. gaia.—Argi zirkuituak: etengailuak, kommutadoreak, entxufe oinarriak, lanparak, pitzarazgailuak eta erreaktantziak.
6. gaia.—Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoia, berokuntza-zirkuituak, airea betetzea eta purgatzea zirkuituetan, galdara-geletan eta haien elementu berezietan. Erremintak. Materialak. Oinarrizko mantentze- eta konponketa-eragiketak.
7. gaia.—Eskema elektrikoak eta iturgintzako eskemen ulermena.
8. gaia.—Mekanika. Udalaren makineria, ibilgailuak, erremintak eta lanabesak erabili, mantendu, ikuskatu eta konpontzea. Biltegiaren kontrola.
9. gaia.—Eraikinen, bideen eta hiri-altzarien mantentze-lanak. Pintura oro har, dekorazio-pintura eta obrakoa. Bideak pintatzea. Pintura-erremintak, materialak eta produktuak, pintura-lanak.
10. gaia.—Igeltserotzako kontzeptu orokorrak. Erremintak. Materialak. Igeltserotza-lanak. Zolaketa eta alikatatzea. Enkofratuak eta hormak jasotzea. Zimendatzea. Ehorzketak.
11. gaia.—Zurgintzako kontzeptu orokorrak: zurgintzako tresnak, zurgintzako materialak, zurgintzako lanak.
12. gaia.—Sarrailagintza eta metalurgia. Oinarrizko nozioak. Erremintak. Materialak. Tratamendu termikoak eta gainazal-tratamenduak. Sistema mekanikoen konponketa, doikuntza eta erregulazioa. Ateetarako sarrailak, bisagrak, hornigaiak eta bestelako burdineria mantentzeko eta konpontzeko oinarrizko eragiketak.
13. gaia. Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua.
14. gaia.— 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa. IV. Titulua: I. Kapituluak: Ondasunak oro har.
15. gaia.— 280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onesten duena. I. titulua: I. kapituluak: Xedapen orokorrak. V. Kapituluak: Ondasunen erabilera eta aprobetxamendua.

16. Gaia.— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. I. Titulua: I. Kapituluak: Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua

17. gaia.— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua: II. kapituluak: 4. atala: Abstentzioa eta errefusatzea.

Oharra: Gai guztiak deialdi hau onesten den egunean indarrean dagoen legeriaren arabera eskatuko dira.